

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

4305

HUTS-ZUZENKETA, honako agindu honena: «Agindua, 2022ko irailaren 21ekoa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2022ko abuztuaren 18ko Agindua, Lekualdatze-lehiaketarako deialdia egiten duena Justizia Administrazioaren kidego eta eskala hauetako funtzionarioentzat: Prozesu eta Administrazio Kudeaketa, Prozesu eta Administrazio Izapidetzea eta Laguntza Judiziala».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 217/2008 Dekretuaren 18.2.a) artikulua ezartzen duenez, aldizkariaren argitalpena prestatzerakoan egiten diren hutsak, baldin eta dokumentuaren edukia aldatzen badute edo zalantzak sortzen badituzte, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, ofizioz nahiz organo edo entitate interesdunak eskatuta.

Era horretako huts bat aurkitu da, gaztelaniazko argitalpenean, 2022ko irailaren 21eko Aginduan, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2022ko abuztuaren 18ko Agindua, Lekualdatze-lehiaketarako deialdia egiten duena Justizia Administrazioaren kidego eta eskala hauetako funtzionarioentzat: Prozesu eta Administrazio Kudeaketa, Prozesu eta Administrazio Izapidetzea eta Laguntza Judiziala. Agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2022ko irailaren 30ean argitaratu zen (188. zk.). Hori dela eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen.

Honako hau dioen lekuan:

«Servicio Común Procesal de Ejecución – 580056/1 – Tramitación Procesal y Administrativa – Donostia / San Sebastián – Gipuzkoa».

Honela esan behar du:

«Servicio Común Procesal de Ejecución – 580056/17 – Tramitación Procesal y Administrativa – Donostia / San Sebastián – Gipuzkoa».